



OIARTZUNGO UDALA
Oiartzungo Gazteria eta Kirola Saila

Oiartzungo 2006ko Udaleku Irekien Helburuak eta Arauak (Lehen Hezkuntza)

1. HELBURU OROKORRAK

- Haur taldearentzat, udalekuak esperientzi alai eta positiboa izatea, hau da, haurrak udalekuan ondo pasatzea.
- Udalekuetan aisialdi alternatiboa eskaintzea..
- Ikastetxe ezberdinetako haurren artean harremana sortzea.
- Norbere taldean eta talde osoan euskara era egokian erabiltzea sustatzea (esaerak, esamoldeak...)
- Natura ezagutzen lagunduko duten ekintzak aurrera eramatea.
- Herria eta udalekuen arteko harremana indartzea.
- Oiartzuni buruzko ezagupen fisikoa ematea.
- Programatutako ekintzekin denen partaidetza bultzatzea.
- Haur sahararren euskararekiko jarrera ona bultzatzea eta zenbait hitz eta esaldi ulertzea.

2. HELBURU ZEHATZAK

- Ekintzen bidez euskararen erabilera egokia bultzatzea.
- Gure guraso edo aiton-amonon jolasak ezagutu eta erabiltzen ikastea.
- Taldean jolastearen garrantziaz jabetzea.
- Normalean erabiltzen ez dituzten jolasekin ondo pasatzea.
- Eskulanen bidez, sormena lantzea.
- Birziklatzeari garrantzia ematea.
- Gure ingurua ezagutzea eta errespetatzea.
- Haurren harremanak egokiak izan daitezen saiatzea.
- Udalekuetako partaide guztien arteko harremanean errespetuzko jarrera mantentzea.



OIARTZUNGO UDALA
Oiartzungo Gazteria eta Kirola Saila

3. ARAUAK

3.1. Gurasoei zuzendutako arauak:

- Haurrak udalekuetara eraman eta jasotzeko ordutegia eta lekua errespetatu behar da. Haurrak 9:30ean sartu eta 13:30ean aterako dira dagokien ikastetxetik. Beraz, gogoratu 13:30etik aurrera gurasoen ardurapean gelditzen dela haurra.
- Haurra egun batean etorriko ez bada, abisatu beharra dago.
- Haurrek udalekuz kanpoko zerbeit egin behar badute, aldeztu aurretik abisatu behar da.
- Haurrek ez dute etxetik ekarritako jostailurik behar. Ekarriz gero, euren ardura da eta denon erabilerrako izango da.
- Haurrek ez dute dirurik behar (hamaiketako etxetik ekarri behar dute, eta litxarkeriak ez izatea gomendatzen da).
- Etxera bidaltzen diren oharrak errespetatu egin behar dira.
- Haur guztiei eguzki krema eman behar zaie eta bisera ekarri behar dute (batez ere igerilekura eta irteera luzeetara joateko)
- Autobusean doazen haur guztiek geltoki berean igo eta jaitsi behar dute. Aldaketarik balego, abisatuta soilik onartuko da.
- Osakidetzako txartelaren fotokopia lehenengo egunerako ekarri behar da. Azken astean ekartzea alperrik izan daiteke.

3.2. Hurrei zuzendutako arauak:

- Udalekuetako ordutegia errespetatuko dute.
- Udalekuak ondo pasatzeko direnez, denon arteko harremana egokia izan dadin saiatuko dira eta lagun giroan jardungo dute.
- Egunaren bukaeran gela jaso egingo da eta materiala zainduko da.
- Denok elkartu arte itxarongo dute.
- Ez dute dirurik ekarriko, ez baitute behar.
- Ez dira pasiloetatik korrika ibiliko.
- Behar ez dituztenez, ez dute jostailurik ekarriko eta, ekarriz gero euren ardura izango dira.
- Hamaiketako egingo bada, hau etxetik ekarri beharko dute.